



2. IBILBIDEA NEBERONDORA OSTERATXO BAT

DURANGO - NEBERONDO - SANTA LUZIA - OROZKETA

Ibilbidea Durangoko San Roke basilizan hasten da. Saihesbide azpitik igaro eta ezkerreko aldean hartuko dugu. Hemendik gutxira berriro hartuko dugu ezkerreko aldean, eta San Rokeburu aisialdi-gunera eta Durangoko balkoira iritsiko gara.

Begiratokiaren eskuineko aldetik bidexka bat dago Bitañon auzora doana. Bitañon, **Palazio** baserria ikusiko dugu (XVI-XVII) mendekoa, eta Zabala familiaren armarioa ere bai.

Eskuinaldeko pista jarraituta **Dolometa** mintegira eta basozainen etxera helduko gara. Pistari jarraituz, gurutze batera helduko gara eta, han, ezkerreko aldean hartuz, **Neberondora** helduko gara (440 m). Bertan neguan jauzitako elurra gordetzen zen izotz modura erabili ahal izateko eguraldiak epeltzen zuenean.

Neberondoko bigarren bidegurutzean ezkerreko aldean hartuko dugu, **Santa Luzia** auzorantz alegia. **Mugarrako** iparraldean gaude, eta ondo zaindutako baserri batzuk ikusiko ditugu bertan.

Santa Luzia auzoa igarota, mendi-pistak bidegurutze batera eramango gaitu. Ezkerreko aldean hartuz gero, **Landaederra** aisialdi-gunera iritsiko gara; eskumakoa hartuta, kilometro bat inguru harri-txintzarreko pistatik joango gara, baina gero bide asfaltatua aurkituko dugu: Orozketa auzora eramango gaituen bidea alegia. Ibilbidea Durangon amaituko da.



DISTANTZIA

11 km



IRAUPENA

3 ordu



DESNIBELA

300 m



ZAILITASUNA

Erreza